



**2019/06/15EAN UDALBATZA ERATZEKO ETA ALKATEA AUKERATZEKO  
EGINDAKO BILKURAREN AKTA**

**Eguna:** 2019/06/15

**Hasiera ordua:** 12:00

**Amaiera ordua:** 12:15

Aramaion, Udaletxeko bilkura aretoan, bi mila eta hemeretzi ekainaren 15ean, eguerdiko hamabiak izanik, bi mila eta hamabosteko maiatzaren hogeita seiko udal hauteskundeen ondorioz hautatuko zinegotziak bildu dira.

**Bertaratuko zinegotzi hautetsiak:**

**EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) HAUTAGAITZAKOAK:**

Lierni Altuna Ugarte

Santiago Balantzategi Beitia

Ana Maria Martiarena Arregi

Iban Herrarte Arana

Gorka Astondoa Altuna

Maria Cristina Etxanusia Irure

Oihana Ameskoa Perez

**EUSKO ALDERDI JELTZALEA – PARTIDO NACIONALISTA VASCO (E.A.J.-P.N.V.)  
HAUTAGAITZAKOAK:**

Pedro Elosegui González de Gamarra

Juan Antonio Peña Orobengoa

**Idazkaria:**

Bittor Agirreurreta Murgia

Goian aipatzen diren zinegotziak, ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoaren 195-196 eta 2568/1986 Errege Dekretuak onetsitako Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 37. ataletan jasotakoa betez, udal-korporazio berria eratzeko bertaratu dira.

**ADINEKO MAHAIAREN OSAKETA**

Bilkurari hasiera eman ondoren, ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoaren 195.2 artikularen arabera, Idazkariak Adin Mahaia osatu behar dela adierazi du. Horretarako, bertaratutako hurrenez hurren adinez nagusia eta gazteena diren zinegotzi hautatuak deitu ditu udaleko idazkariak, Adineko Mahaiaren burutza har dezaten. Adin Mahaia idazkaritza, berriz, korporazioko idazkariari dagokio. Adin Mahaia honela osatu da:

Lehendakari, adinez nagusia den Maria Cristina Etxanusia Irure andrea 68 urtekoa, adinez gazteena den Lierni Altuna Ugarte andrea, 36 urtekoa eta, idazkari, korporaziokoa den Eñaut Azkoaga Ugalde jauna.

Idazkari jaunak, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 36.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, adierazi du zinegotzi hautetsien esku daudela eskudirutako izakinen eta udaleko kutxan eta banku erakundeetan gorderik dauden balio propioen ziurtagiriak, bai eta inbentarioari dagokion informazioa ere.

Ondoren, idazkariak lehendakari andeari ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoaren 195. artikuluan azaltzen direnei jarraituz, Adin Mahaikideek hautatuek aurkeztu dituzten ziurtapenak konprobatu behar dituela azaldu



dio. Horrez gain idazkariak adierazi du hautatu guztiek aurkeztu dituztela Ondare Ondasunen eta interes zein bateraezintasun kausen aitopenak.

Hautatuek ziurtapenak aurkeztu dituzte eta Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeak emandako aldarrikapen-aktarekin bat datozela ikusirik, eta ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoaren 195. artikulua 4. atalean jaso moduan, hautatutako zinegotzi guztiak daudenez Idazkariak legezko *quoruma* dagoela azaldu du.

Korporazioa eratu ondoren, zinegotzi jaun-andre guztiak deituak izan dira, banan banan, karguaren jabetza har dezaten eta denon aurrean, apirilaren 5eko 707/79 Errege Dekretuak ezarritako legezko formularen arabera, *“zinez eta zure ohorearen izenean, Aramaioko Udaleko zinegotzi karguaren betebeharrak zintzoki, Erregegariko leialtasunez eta Konstituzioa gorde eta gordearaztea, Estatuaren legeen legea den aldetik zin egiten edo hizematen duzu?”* galderari baiezkoa eman diote, legeak onartutako hitzeman edo zin egite formula erabiliz. Horrenbestez, Adineko Mahaiburuak ERATUTZAT EMAN DU UDAL KORPORAZIOA.

### ALKATEA HAUTATZEA

Jarraian, alkatea hautatzeko jarraitu behar diren lege xedapenei helduz, ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoaren 196 artikuluan ezarritakoa betetze aldera, lehendakari jaunak galdetu du zeintzuk diren alkate hautagai izan nahi diren zerrenda-buruak.

Alkate hautagai izango diren zerrenda-buruak bakarra da, EAJ-PNVko zerrendaburuak uko egin diolako bere hautagaitza aurkezteari:

#### 1.- Lierni Altuna Ugarte (*EH BILDU*)

Jarraian, bozketa agerikoa izan dadila adostu dute zinegotzi guztiek, eta zinegotzi bakoitzak bere botoa eskua altxatuz eman du, honako emaitzarekin: aldeko 7 boto eta 2 abstentzio.

Lierni Altuna Ugarte zinegotziak botoen gehiengo absolutua lortu duenez, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196 B) artikuluan ezarritakoa betez, alkate berria LIERNI ALTUNA UGARTE andrea aldarrikatu du Adin Mahaiburuak.

Jarraian, Adin Mahaiburuak kargua onartzen duen galdetu dio. Lierni Altuna Ugarte andreak, Kargua onartu du eta, ondoren, *“zinez eta zure ohorearen izenean, Aramaioko Udaleko zinegotzi karguaren betebeharrak zintzoki, Erregegariko leialtasunez eta Konstituzioa gorde eta gordearaztea, Estatuaren legeen legea den aldetik zin egiten edo hizematen duzu?”* galderari baiezkoa eman dio, legeak onartutako hitzeman edo zin egite formula erabiliz.

Hala, LIERNI ALTUNA UGARTE andrea Alkate karguaz jabetu da, momentu horretan Adin Mahaia desegin eta bilkuraren lehendakaritza Alkate andreak hartu du eskumen, eskubide eta betebeharrak guztiekin.

Ondoren, Alkateak hitza hartu du eta eskerrak eman ditu beragan jarritako konfiantzagatik. Adierazi du ardurarekin, eta taldeanean, elkarlanean eta gogotsu hartzen duela ardura. Gehitu du denen artean lan egingo dutela proiektuak aurrera ateratzeko.

Guztiek zorianak eman dizkiote Alkateari eta zorte ona opa diote.

*Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzailea naizen aldetik, horren guztiaren fede ematen dut, alkatearen oniritziarekin.*

Adineko Mahaiaren  
Lehendakaria

Alkatea

Idazkaria